



www.uzturpe.eus



Ibarra, 2016ko urtarrilaren 18a

Guraso agurgarriak:

Urtero bezala garai honetan 2016-2017 ikasturteko, aurrematrikula egiteko epea zabaltzen da.

Hori dela eta, jakinarazi nahi dizuegu, izen ematea ikasle berrientzat bakarrik dela. Beraz, kontrakorik ez badago, zuen seme-alaba matrikulatua geratzen da.

Ikasturte honetan 2 urteko gelak, irakasleak eta bertan lan egiteko era ezagutu duzue dagoeneko. Datorren ikasturtean, zuen seme-alaba, 3 urteko gelan hasiko da eta Egiko eraikuntzara igoko da.

Uzturpe Ikastolako Egiko gelak eta bertan lan egiteko era ezagutzera gonbidatu nahi zaituztegu. Horretarako, datorren **astelehenean, hilak 25, arratsaldeko 5:30ean** antolatu dugun saiora gonbidatu nahi zaituztegu.

Bilerara ezingo bazenu etorri, deitu (943 671299) eta beste hitzordu bat adostuko dugu.

Gure artean izango zaretelakoan.

Iker Gibelalde
Uzturpe Ikastolako Zuzendaria